

SAN MARKOSEKO MANKOMUNITATEAREN EREMUAN BIGARREN ESKUKO MERKATUAK ANTOLATZEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIOARI BURUZ BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIA

AURREKARIAK

1.- Kanpainaren jatorria

San Markoseko Mankomunitatea bere kudeaketa-urteetan zehar konpromiso sendoa mantentzen du herritarren ingurumen-kontzientziazio eta –sentsibilizazioarekin Mankomunitatea osatzen duten 10 udalerrietan. Konpromiso hori jarduera desberdinekin egituratu da baina guztiek alderdi komuna izan dute: hondakinen sorrera murriztea, batetik, eta hondakinak jatorrian hobe bereiztea, bestetik, birzikla badaitezke.

Era berean, azken hamarkadan izandako eboluzioari jarraiki, San Markoseko Mankomunitatean hondakinak bereizteko orduan partaidetza-ehunekoak onak izan arren, oraindik asko dago egiteke ingurumen-bikaintasunaren eta garapen iraunkorraren mailarik gorenetara iristeko; izan ere, gizarte guztiarentzat lehen erronka da hondakinen sorreraren goranzko joera alderantzikatzea; ondoren gaikako bilketa sustatu behar da materiaren birziklapen-ehunekoak gehitzeko eta estuki lotuta dago herritarrek jatorrian bereiztearekin. Hori eremu sozioekonomiko guztietan egin behar da.

2.- Kontratuaren xedea

Kontratuak gure kontsumo-gizartean berreskuratu beharreko praktika bezala berrerabilpena duintzera bideratutako jarduerak bultzatzea du helburu.

3.- Hartzaileak

Kanpaina San Markoseko Mankomunitatea osatzen duten 10 udalerrietan zehar zabalduko da eta populazioaren sektore bakoitzean planteatutako ekintzei erreparatuko zaie.

4.- Planteatutako ekintzen deskribapena

Bigarren eskuko merkatuak antolatzea

San Markoseko Mankomunitateak halako merkatu-motei dagokienez laugarren edizioa antolatzearen aldeko apustua egin du. Horietan objektu ugariren berrerabilpena geroz eta gehiago duindu da; bestela, birziklatzera edo

deuseztatzera bideratuko lirateke. Aurreko edizioetako arrakasta, bai jendea hurbiltzeari dagokionez, bai erakusketari bezala parte hartzeari dagokionez, eta krisi ekonomikoaren abagune berria nahikoa arrazoi dira bigarren eskuko merkatuen antolaketa berriz bultzatzeko (*l. eranskina*).

5.- Hizkuntza-irizpideak:

Eskaintzaren hizkuntza-tratamenduak EAeko bi hizkuntza ofizialak integratu beharko ditu, alde batera utzi gabe bakarrik euskara erabiltzea hala eskatzen duten ekintzetan eta taldeekin.

6.- Lanak kontrolatu eta ikuskatzea

Aurkeztutako proposamena esleitu ondoren, esleipendunak hainbat bilera egin beharko ditu San Markoseko Mankomunitateko arduradunekin. Gainera, horiekin informazio-bidea zehaztuko du astero, aurkeztutakoa behar bezala betetzen dela ikuskatzeko.

7.- Gauzatze-epea

4. atalean deskribatutako hiru ekintzak 2009ko abenduaren 30a baino lehen garatuko dira.

I. ERANSKINA: BIGARREN ESKUKO MERKATUAK ANTOLATZEA

I.1.- Aurrekariak: prebenitzeko informatzea

Azken urteetan zehar, San Markoseko Mankomunitatea ekimen desberdinak abian jartzen ari da hondakin gutxiago sortzeko. Ekintzak neurri handiagoan edo txikiagoan biztanleen artean errotu dira: etxean konpostatzea, nahi ez den publizitatea baztertzea postontzietan jartzeko eranskailuak banatuz, jaietan eta ekitaldi mota guztietan edalontzi berrerabilgarriak mailegatzeko zerbitzua, bigarren eskuko merkatuak, erabilera bakarrekoaren ordeztu erabiltzeko poltsa berrerabilgarriak banatzea, etab.

Ekimen horiek guztiek, gehi hurrengo hilabeteetan abian jar daitezkeenek, dibulgazio-lan garrantzitsua behar dute, ahalik eta herritar gehienek barnera ditzaten eta eraginkortasunez parte har dezaten, bai proposatzen zaizkien ekimen zehatzetan, bai eguneroko bizian aurki dezaketen beste egoeratan.

Horretarako, bigarren eskuko merkatuak Mankomunitateak sustatu dituen ekintzei buruz informazioa transmititzeko espazio bikainak direlakoan gaude, batez ere, kontuan hartuta, batetik, merkatuak berez hondakinak prebenitzeko ekintza direla eta, bestetik, aurreko edizioetan jende asko izan dela.

Hurrengo urteetan gizarteak prebentzioaren kontzeptua barneratuko duela aurrez ikusten da, bere egunean birziklapenarekin gertatu zen bezala. Beraz, jendearen arreta erakartzea hondakinen prebentzioari buruz informatua izateko eta, aldi berean, hondakinen prebentzioa ulertzen laguntzeko bitartekoak eskaintzea posible da. Hori da ekimen honen lana.

I.2.- Helburuak

- Objektu erabiliak berrerabiltzeko herritarrei esperientzia praktikoak eskaintzea, bai salmenten postuak betez, bai bisitari edo erosle bezala.
- San Markoseko Mankomunitatearen eremuko udalerrri guztietan bigarren eskuko 11 merkatu antolatzea; antolaketa, azpiegitura, material eta etiketaren bidez objektu erabilien trukaketa-salmentaren praktika duindu behar da. Era berean, hiri-hondakinen sorrera prebenitzeko eta gaikako bilketen emaitzak, autokonpostatzearen potentzialtasuna... aditzera emateko ekimenei buruzko informazio-puntuak izango dira.

I.3.- Hartzaileak

Kanpaina honetako hartzaileak San Markoseko Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako herritarrek dira. Salmenta-postuetan partikularrek, elkarteek, profesionalak eta abarrek parte hartu ahal izango dute eta herritar guztiei zuzeneko gonbita luzatuko zaie bisitari bezala parte hartzeko.

I.4.- Kanpaina garatzeko lan-metodologia

Esleipendunak metodologia egokia erabili beharko du bigarren eskuko 11 merkatuak arrakastatsuak izateko; merkatuetara bertaratutako kopurua eta saltzaileena gehitzearen erronkari aurre egin behar zaio. Gutxienez partaidetzak berdina izan behar du edo aurreko edizioetako gainditu behar du. Gainera, salmenta-postuei dagokienez oreka lortu beharko da parte har dezaketen guztiek (partikularrek, elkarteek, profesionalak, eta abarrek) nahikoa ordezkari izateko.

Esleipendunak komunikazio-plana aurkeztu beharko du ekimena zuzeneko inpaktuekin zabaltzeko. Horien hartzaileak zehaztu beharko dira, baita norainokoa kalkulatu ere. Era berean, salmenta-postuetan herritarren partaidetza lortzeko ekintza-plana aurkeztuko da bi ustezko kontuan hartuta: bata, jada aipatutakoa, gizarte-eremu desberdinen presentzia orekatuari buruzkoa eta, bestea, salmenta postuetan aniztasuna eta heterogeneotasuna bilatzeari buruzkoa.

Merkatuetan parte hartzen duten pertsonen balorazioak idatziz biltzeko proposatutako mekanismoak zehaztuko dira eta hurrengo alderdiak aurrez ikusiko dira: antolaketa, merkatuaren formatua, jardueraren garapena, salmentei dagokienez asetze-maila, besteak beste; halaber, beste edozein iritzi har daiteke ondoren baloratzeko eta etorkizuneko edizioetan hobekuntzak inplementatzeko.

Merkatuak betetzen duten espazio fisikoan bakoitzean informazio-puntu bat jarriko da eta protagonismo azpimarragarria izango du. Proposamenean merkatuaren funtzionamenduari eta prebentzioaren eremuan gainerako ekimenei buruz bisitariak informatzeko erabiliko diren giza baliabideak eta bitarteko materialak zehaztu beharko dira. Jendeari arreta eskaintzeko pertsonen prestakuntza egokia izango dute eta prebentzioari buruzko ezagutzak izango dituzte. Euren esperientziak zabala izan behar du.

I.5.- Kanpainaren garapena

Bigarren eskuko 11 merkatu antolatuko dira, Mankomunitateko udalerrri bakoitzean bana, Donostian izan ezik; bertan bi egingo dira. Jendeari arreta eskaintzeko ordutegia, kasu guztietan, 10:00etatik 14:00etara izango da. Merkatuak larunbatetan, igandetan edota jaiegunetan egingo dira.

Proposamenak 11 merkatuen kokapenak zehaztuko ditu eta guztiak kanpoan egingo dira. Antolaketa- eta ahalik eta bisitari gehienak hurbilduko direla bermatzeko, baldintza egokienak dituzten kokapenak hautatuko dira. Hala eta guztiz ere, hautazko kokapena erreserbatuko da, beharrezkoa izanez gero, baldintza meteorologikoak kontrakoak diren kasuetarako.

Guztira 25 karpa jarriko dira eta bakoitzak 3 x 3 m edo baliokidea neurtuko du eta bertan kokatuko dira objektu erabilien salmenta- eta trukaketa-postuak. Halaber, informazio-postua izango da. Kalitate frogatua duten karpak izango dira, estaltzen duten elementuen egiturak eta kalitateak euri eta haizearen egoera normalak pairatu behar dituzte, hau da, egiturak sendoa izan beharko du eta estalki iragazgaitza izango du. Era berean, mahai eta aulki tolesgarriak erabiliko dira erakusketari bakoitzarentzat kopuru nahikoan eta merkatu bakoitzean postua atxikitzen zaien pertsonen eskura izango dira. Enpresa esleipendunak eskaini beharko ditu material horiek eta muntatzeaz, desmuntatzeaz eta gordetzeaz arduratuko da. Karpak muntatuak egongo dira beren aulkiekin 09:00etarako kokapen bakoitzean. Biltzen 14:00etan hasiko dira, merkatua amaitzen denean. Material guztiak egoera ezin hobean egongo dira eta kanpaina zehar mantentzeko zainduko dira. Enpresa esleipenduna materialak erabiltzeagatik sortutako kalteez arduratuko da. Enpresak Erantzukizun Zibilaren aseguruia izan beharko du.

I.6.- Bitarteko osagarriak

Merkatu guztietan tailer praktiko desberdinak antolatuko dira eta hondakinak prebenitzairekin zerikusia izango dute. Autokonpostatzearen eta gaikako bilketa sistemen gaiak azpimarratuko dira. Proposamenak tailer bakoitzaren ezaugarriak, giza baliabideak, bitarteko materialak eta iraupena zehaztu beharko ditu. Tailerretan ingurumen-hezitzaile espezializatuak izango dira. Horiek izan ezean, herritar guztientzat ekintzaren bat bidera daiteke, berrerabilpenaren kultura azpimarratzeko.

Gainera, eskaintzak bertaratuei emateko oparia izango du, kanpainaren filosofiarekin eta helburuekin bat. Objektuaren deskribapena, banatu beharreko aleen kopurua eta

banatzeko modua zehaztuko dira. Objektua bizi erabilgarriaren ondoren % 100 hondakin birziklagarria izango da.

Mankomunitateak 23 olana ditu inprimatuak hondakinen prebentzioarekin zerikusia duten mezuekin; berariaz sortu ziren bigarren eskuko merkatuetan agertzeko. Eskaintzaren barruan sartu beharko da merkatu guztietan jarri behar direla. Olanek 300x190 cm neurtzen dute. Halaber, informazio-euskarri izango diren bi egitura behar dira eta edukiak esleipendunak eguneratu beharko ditu. Metalezko triptikoak dira eta holtz tolesgarriaren moduan tolestatzen dira. Alde bakoitzak 125x175 cm ditu eta aurkeztutako eskaintzan sartu beharko da muntatu, jarri, garbitu eta baldintza ezin hobeetan mantentzea.